# GOIZUETA

IPUINA
1- Ipuina (amak)

ESAERA
3- Farola (amak)
Dilin dilin joare.
Txalo txalo txalo txin.
Arri arrri mandoka.

HAUR JOKO
2- Kikilirio (izebak)

HERRI OHITURA
5- Zağia (amak)
4- San Agustin Artikuntzan (izebak)

1- OILOAK:

Joxe hor ari zen baratzan lanen eta oilo guzik hor sumaho tto kirrikikittita kurraka, airen eta karrasika dabiltzala eta jetsi da arage handi bat hartzeko ikusi do zakurra dabilela bere ingurutik ta niri oihuka kanpotikan Joxe ni bazkaria patzen, ta radion patua nula ta erdi surra, ta ez nin aditzen deus, kuestioa Benantzio ikusi nun lehiotikian keinuka Joxe hor dabilela nere bila ta ateri naiz kanpura ta:

- Zer tzo Joxe?
- Oilo guzik zakurrak ia akatu tto.
- Bai!

Zer jon naiz lasterka ta bat itoa, bestek batzuk ikuiko baratzara aterek, beste alanbren tarten sartuk, bestek kanpora aterek, beste bat dena txikitua.

- Zakurrakin zer in dute?
- Zakurra ez tikit, jaberik ez zuela, san nin neska ibiltzen zen horreri, harrena ez zela, harren etxera joten zela, harrek jaten maten zila, kuestio da zakurrikan ez dela ageri, akahatu zuten.

2- KIKILIRIO:

Kikilirion jostaka ibiltzen ginan, batzuk gelditu, batzuk jon eskapo gordetzera, eta gurdetzen zian denbun harrapatu behar zitunak toki batan egon haien ardorik joteko kikilirion egin bitarten eziteken atere bere tokitik, ni ez niteken atere nere tokitik, ta kikilirian iten zuten denbon, ni ondotik haien ondotikan kikiliron in zutelako, eta gero ni bino leno ni nengon tokira ailegatzen bazian, ni berriz ere kastigatua ni berriz ere haiei harrapatzera.

- Ta eskapo jon zianak harrapatzeko zer egin behar zuten.

- Ni berriz bueltatu nere tokira ta han jarri, porque lasterka haiek aiteguhen baldin bazian ni nengun tokira berriz ere ni banitzan han kastigatua haiek harrapatzeko.

- Ta esan behar al zenun izena edo zerbite.

- Bai, hara, 1,2,3 pote batekin, hara harrapatua ta gero berriz ere erne edozein bazterratik agertuko te ziren ibiltzen bait ginan.

Ta berriz ere ikusten nuen denbon, hara jon nere tokira eta 3 pote jo ta nere tokira jon denak harrapatu arte, denak ez nitun harra putzen, ni baino leheno ailegatzen zianak han gelditzen zian.

3- FAROLA:

Otsandoko katua farolan ehiztari ere begitzen dio lehioko gaztari.

- DILIN DILIN JOARE:

Dilin dilin joare behiak kendu dirabe mayo xarko barahan bost aza landare.

- TXALO TXALO:

Txalo txalo
txalo txin
torri eitxera
Juan Martin
zertarata
hartara
talo ta esnea jatera.

- ARRE ARRE MANDAKO:

Arre arre mandako
bihar Iruñarako
etzi Tolosarako
handik zer ekarriko
Zaku bete kukuso
haiek zeinentzako
lehenbizina hitz eta parra
iten dunentzako.

4- SAN AGUSTIN ARTIKUNTZAN:

San Agustin Goizutako barrio bat da, eta joten gala goiz goizetik preparatuta, batzuk oinez bestek kotxen, denak giraka, meza nagusira ere izaten dela, jende asko joten dela meza nagusia eta gero iren dula bazkaldu, pilotarik, musikare izaten dela Donostiko finka dela hori, bino dela Goizuta, Goizutako terrenoa dela eta joten gala eguna pasatzera eta oso egun ona pasatzen du han mahaia handia toki polit baten, han juntatzen gala bazkaltzera, bazkari ederra bakoitxari gotzen ziona kafe ta puxka hartu ta iduitzen ziunen eitxera jon.

5- ZAGIA:

Zaiana karnabalatan iten da, astelehenen gaztek baserriz baserriz eskean, dantzatuz, hartzen huzte arraultzak ta diruk, eta urrengo egunen

prepatzen dute zai dantzare ta hamabi izaten dia batzuk makilo dantza iten dute ta zaia erdin ziripurdia iten ta berriz e eskea iten dute eta eguna gaztek gustora ibiltzen dira.

- Zaia nolakoa da.

- Zaia dena pintatuta beltzaz, ta bestek zuriz jantzik zapela gorrikin, euskaldunak bezela.

- Zaia zer da? Ona da, edo zer iten dizo.

- Zaiak ziripurdia iten dun denbon atetzen da eta harrapatzen ttun neska guziri arpei guzia pintatzen dite, ta bere gustoa hori izaten da.